

Goi-mailako joskintzako teknikak. Fantasia

Sakontze-maila

IKASTARO PRESENTZIALA
2022.07.18—22

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Modaren sektore profesionalean bikaintasuna eta ezagutza tekniko handiagoa sustatzeko xedez, Museoak Balenciaga Etxeko fantasiako tailerretan erabilitako metodo zehatzetan sakontzeko, lehenengo edizioak izandako harrera onaren ondoren, ikastaroaren bigarren edizioa aurkezten du.

Prestakuntzak bost egun iraungo du, eta barne hartuko ditu josteko eta lisatzeko tekniken erakustaldiak. Parte-hartzaileek horietan gaitasun praktikoak lor ditzaten, soineko baten osagai jakin batzuk egiteari ekingo zaio. Hain zuzen ere, uhalik gabeko gorputza, bies erako begizta batez errematatua, arreta berezia jarritz barruko kortseletaren egiturari eta fantasiako tailerren berezko itxitura- eta erremate-teknika guztiei, hala nola frunzeak egitea, eta organtzak, guatinak eta itxiturak jartzea. Ez da jantzi oso bat egingo; aitzitik, haren zati bat esperimentazio-esparru gisa erabiliko da.

1. Ikastaroaren eta programaren aurkezpena

2. Fantasiaren atelierra

- A. Materialak, zetazko ehunak eta haien tratamendua
 - B. Fantasiazko berezko eraikuntzak
 - C. Markatzeko eta ebakitzeko teknikak
 - D. Estanpatuen kokapena
 - E. Diseinua ehunera egokitzea
 - F. Indargarriak, betegarriak eta bestelako osagarri batzuk
-

3. Ariketa praktikoa: barneko kortselet bat egitea

- A. Gorputza prestatzea eta ebakitzea
 - B. Hagaxketarako josturak eta zintak jartzea
 - C. Tulezko kopak jartzea
 - D. Bular-betegarriak
 - E. Hagaxkak muntatzea
 - F. Kreailera eta gros grain erremateak eskotean
-

4. Ariketa praktikoa: uhalik gabeko eskotedun gorputz bat prestatzea eta moztea

- A. Ehuna prestatzea eta lisatzea
 - B. Piezak mihizatzea eta markatzea
 - C. Forruak moztea
 - D. Kankan-parpaila
-

5. Ariketa praktikoa: markak eta albaintzea

- A. Hari ahulak eta markak
 - B. Gorputza albaintzea
 - C. Gerria albaintzea eta lehen probarako aurkeztea
 - D. Zuzenketak eta fintzea
-

6. Ariketa praktikoa: gorputza fintzea eta egitea

- A. Zuzenketak fintzea
- B. Jostura nagusiak albaintzea eta jostea
- C. Lisatzeko teknikak
- D. Kreailera jartzea organtzazko biesarekin
- E. Dekorazio-banda eta begizta jartzea
- F. Itxitura konbinatuak, kreailera, automatikoak eta kortxeteak

7. Ariketa praktikoa: zimurak muntatzea

- A. Gorputzaren barrena markatzea
- B. Ertzean organtza jartzea eta baxu-puntua egitea
- C. Panela forratzea eta marjinen ehunen ertza jostea
- D. Zimurtzeko albainu txikiak pasatzea
- E. Panela zimurtzea eta eskuz jostea
- F. Forrua gerrian jartzea

8. Ariketa praktikoa: bistakoak eskuz muntatzea jantzi bikoitzetan

- A. Piezak markatzea
- B. Barneko piezan guatina jartzea
- C. Kanpoan eta barruan barrenak egitea
- D. Ertza albaintzea eta eskuz jostea

9. Ariketa praktikoa: fantasiako bestelako teknika batzuk

- A. Forratutako kortxeteak eta harizko presatxoak
- B. Automatikoak forratzea
- C. Barneko erremateetarako organtza-xingolak
- D. Lumak jartzea

Javier Martín Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostuntza-teknika espezifikoa ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostuntzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izenekoa. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías

sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoa ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarrerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko *prêt-à-porter* jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuako Hezkuntza Ministerioi hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostuntza teknikak bildu eta helaraziz.

© Cristóbal Balenciaga Museoa



DATAK

2022ko uztailearen 18tik 22ra.

ORDUTEGIA

10:00- 14:00/ 15:00- 18:00

Guztira, 35 orduko jarduera.

HIZKUNTZA

Gaztelania.

PARTE-HARTZAILEAK

Modaren Diseinua, Patroigintza eta/edo Jantzigintzako tituludunak, modaren arloko profesionalak, eta fantasiako goi-mailako jostuntzaren teknikak sakonago ezagutu nahi dituzten guztiak. Bereziki egokia da aurretik fantasiako goi-mailako jostuntza-tekniken hastapen-ikastaroa edo/eta ertaina, museoak antolatutakoa, egin dutenentzat.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA

Gehienez ere, 16 parte-hartzaile izango dira. Eskatutako dokumentazioaren arabera, parte-hartzaileen aukeraketa egingo da, eta ekainaren 6tik aurrera adieraziko da zeintzuk diren esleitutako plazak.

BALDINTZAK

Parte-hartzaileek jostuntza-teknikei buruzko ezagutzak izan eta egiaztatu beharko dituzte, eta jantzi bat moztu, josi eta prestatzeko gai izan beharko dira.

IZEN-EMATEA

Izen-emateak irekita egongo dira ikastaroa argitaratzen den egunetik hasi eta ekainaren 2ra arte (azken hori barne, 14:00). Interesdunek online dagoen inskripzio-formularioa bete beharko dute, eta modaren esparruan duen trebakuntza eta esperientziaren berri eman behar dute curriculum vitaean. Motibazio-gutuna ere aurkeztu behar da. Bertan, interesdunak jarduerarekin duen interesaren berri eman behar du, bai eta jardueraren edukiarekin duen lotura ere. Osatu gabeko edo epez kanpo jasotako eskariak ez dira onartuko.

PREZIOA

445€. Prezio horren barnean daude ariketak egiteko materialak, 40€ko balioa dutenak. Museoak kit bat izango du parte-hartzaile bakoitzarentzat, behar diren gauzekin: pike-motako edo antzeko mota bateko kotoia, kotoizko estera, tula eta retorra, baita proposatutako ariketak egiteko beharrezkoak diren osagarriak ere. Bestalde, parte-hartzaileek jostintzako oinarrizko tresnak (artaziak, orratzak, jostorratzak, hariak, marka-harria, etab.) ekarri beharko dituzte.

Museoak protokolo bat ezarri du hezkuntza jardueretan segurtasunari buruzko osasun-neurriak betetzen direla bermatzeko, eta hortaz, Museoaren funtzionamendua eta espazioak egokitu ditu, langileen eta bisitarien ongizatea bermatzeko.

PLAZA MUGATUAK / IZEN-EMATEA BEHARREZKOA DA
Parte-hartzaileen gutxieneko kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztagiria emango da.

HARREMANETARAKO
T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Laguntzailea




kutxa kultur
moda
kutxa FUNDAZIOA

ALFA

B

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Getariako Udala